



## [Cast/Eusk] Información sobre Patxi Ruiz después de dejar la huelga de hambre

---

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN :: 12/06/2020

La lucha de Patxi ha dejado al descubierto la crueldad de la cárcel así como el hecho de que el único cometido de esta es romper a las personas. La lucha no termina aquí

### Castellano

Por medio de esta nota pretendemos dar información sobre la situación de Patxi, dos días después de dejar la huelga de hambre. Anteayer, el día que dejó la huelga de hambre, trasladarse del módulo de enfermería al módulo 10 supuso para él un enorme esfuerzo. También subir las escaleras fue costoso debido a la debilidad acumulada. En ese primer día recibió una dieta líquida basada en zumos, con efecto positivo.

Hoy ha llamado a casa y ha explicado a su ama que le están dando bien la dieta y que su cuerpo ha comenzado a estabilizarse. Ha podido comer manzana asada, así como purés de patata y de calabaza. En contra de lo que han difundido desde las agencias, Patxi no ha perdido 4 kilos durante la huelga de hambre y sed, sino 16 kilos.

Es vieja la estrategia del enemigo de difundir que las huelgas de hambre de lxs militantes políticxs son falsas. También anteriormente hemos conocido cosas parecidas, y no puede haber nada más mezquino que mentir sobre la dura lucha que realiza alguien que no encuentra otro camino que ese para defender sus derechos. Desafortunadamente, además de los fascistas, también la socialdemocracia autonomista ha puesto en duda que Patxi haya realizado la huelga de sed, alineándose con Vocento, OK Diario, El Independiente y otros pseudo-diarios.

Después de ser hospitalizado a consecuencia de un fallo renal, Patxi comenzó a beber recuperando algo de peso. Esto sucede porque al estar el cuerpo deshidratado, al beber comienza a absorber el agua. Luego empezó a perder peso de nuevo como consecuencia de la huelga de hambre, como decíamos, hasta perder 16 kilos.

Durante este último mes, desde los mismos sectores (diarios fascistas y socialdemocracia autonomista) se ha puesto en duda la salud mental de Patxi. Durante la historia ha sido habitual presentar a lxs militantes revolucionarixs como si estuvieran locxs para intentar derribar su carácter político sin necesidad de argumentar. Quisiéramos preguntar a quienes difunden esa basura, que en qué despacho político han hecho un diagnóstico psicológico sobre Patxi. ¡Qué falta de respeto por un militante político de primera línea!

Patxi lleva 18 años en la cárcel, ha sido dos veces detenido, dos veces incomunicado, dos veces encarcelado y dos veces salvajemente torturado. Ha pasado 15 años en galerías de aislamiento. Y durante la huelga de hambre ha estado en contacto con su psicóloga de confianza. ¿Alguien se imagina, por poner un ejemplo, si se tratara como a una loca a una mujer que ha sido violada, por el hecho de hablar con una psicóloga? Pues eso es lo que

determinada gente carente de ética ha hecho con Patxi.

En lo que respecta a las razones por las que Patxi abandonó la huelga de hambre, dijo que quería escribirlas él, a lo que ayer añadió que quizá necesite algunos días para hacerlo debido a la debilidad acumulada. Ya sabemos que en el sector de las noticias manda la inmediatez, pero esperar unos días no cambia en nada los pormenores de la lucha de Patxi ni el valor de la lectura que debe hacer. Pedimos comprensión y paciencia.

Por último, la lucha de Patxi ha dejado al descubierto la crueldad de la cárcel así como el hecho de que el único cometido de esta es romper a las personas. Por eso la lucha no termina aquí. Varias movilizaciones se mantienen, y tan pronto como podamos daremos a conocer nuevas iniciativas. Gora Patxi, eta jo eta ke amnistia lortu arte!

Mañana movilizaciones en Bilbo frente a Sabin Etxea, en el Boulevard de Donostia, en Legutio, así como el domingo en Ondarroa, entre otras.

En Euskal Herria, a 12 de junio de 2020.

## **Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.**

### **Euskera**

Ohar honen bidez Patxiren egoeraren inguruko informazioa ematera gatoz, gose greba utzi eta bi egunera. Herenegun, gose greba utzi zuen egunean, esfortzu izugarria izan zen berarentzat erizaindegiko modulutik 10.era joatea. Eskailerak igotzea ere kostatu zitzaion pilatutako ahuleziagatik. Lehenengo egun horretan dieta likidoa jaso zuen, zukuen bidez, eta on egin zion.

Gaur etxera deitu du eta amari azaldu dio dieta ondo ematen ari zaizkiola eta gorputza egonkortzen hasi dela. Sagar egosia eta patata zein kalabaza pureak jan ahal izan ditu. Agentzietatik zabaldu dutenaren kontra, Patxik ez ditu 4 kilo galdu gose eta egarri greban zehar, baizik eta 16 kilo.

Zaharra da militante politikoen gose grebak faltsuak diren ideia zabaltzeko etsaiaren estrategia. Lehenago ere ezagutu ditugu horrelakoak, eta ezin zitalagoa izan bere eskubideak defendatzeko beste biderik aurkitzen ez duen pertsona baten borroka gogorrari buruz gezurrak botatzea baino. Zoritxarrez, faxisten partetik ez ezik, sozialdemokrazia autonomistak ere zalantzan jarri du Patxik egarri greba egin izana, Vocento, OK Diario, El Independiente eta antzeko sasi-egunkariekin lerrokatuz.

Giltzurrunean akatsa izatearen ondorioz ospitaleratua izan eta gero, Patxik edateari ekin zion pisu pixka bat berreskuratuz. Hau gertatzen da gorputza hidrataziorik gabe egonda, edatean ura xurgatzen hasten delako. Gero, berriro hasi zen pisua galtzen gose grebaren ondorioz, esan bezala, 16 kilo galdu arte.

Azken hilabete honetan zehar, sektore berberetatik (egunkari faxistak eta sozialdemokrazia autonomista) zalantzan jarri da Patxiren osasun mentala. Historian zehar ohikoa izan da militante iraultzaileak ero gisa aurkeztea haien izaera politikoa argudiorik eman behar izan

gabe botatzen saiatzeko. Ze bulego politikotan egin duten Patxiren inguruko diagnostiko psikologikoa galdetu nahi genieke horrelako zaborra zabaltzen dutenei. Ze nolako errespetu falta lehenengo lerroko militante batekiko.

Patxik 18 urte daramatza kartzelan, bi aldiz izan da atxilotua, bi aldiz inkomunikatua, bi aldiz espetxeratua eta bi aldiz basatiki torturatua. 15 urte eman ditu isolamendu galeriatan. Eta gose greban zehar bere konfiantzazko psikologoarekin kontaktuan egon da. Norbaitek imajina dezake, adibide bat jartzearen, bortxatu duten emakume bat ero moduan tratatuko balute psikologo batekin hitz egiteagatik? Ba hori da inolako etikarik gabeko zenbait jendek Patxirekin egin duena.

Gose greba uzteko Patxiren arrazoiei dagokienez, berak idatzi nahi zituela esan zuen, eta atzo horri gehitu zion agian egun batzuk beharko dituela sentitzen duen ahulezia dela-eta. Badakigu gaur egun berehalakotasunak agintzen duela albisteen esparruan, baina egun batzuk itxoiteak ez ditu zertan aldatzen Patxiren borrokaren nondik norakoak ezta egin behar duen irakurketaren balioa. Ulerkortasuna eta pazientzia eskatzen dugu.

Azkenik, Patxiren borrokak agerian utzi du kartzelaren krudeltasuna baita bere zeregin bakarra pertsonak apurtzea dela ere. Horregatik borroka ez da hemen amaitzen. Hainbat mobilizazio mantentzen dira eta ahalik eta lasterren ekimen berriak emango ditugu ezagutzera. Gora Patxi, eta jo eta ke amnistia lortu arte!

Bihar mobilizazioak Bilbon Sabin Etxearen aurrean, Donostian Bulebarrean, Legution, edota igandean Ondarroan, besteak beste.

Euskal Herria, 2020ko ekainaren 12a.

### **Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.**

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-informacion-sobre-patxi>